



JONAN FERNANDEZ ▶ BAKETIK-EKO ZUZENDARIA

«Edozein gatazketan %50a gure barruan dago»

TOLOSA ▶ Baketik zentruaren 'Bider mila' proiektua aurkeztuko du tolosarrak gaur Kultur Etxean

BAKE PROZESUA ▶ «Baketik gertu gaude; normalizazioa kontestu baten ondorioa da», dio ▶ 2

TOLOSA ▶

'Bota patxa', Galartza eta Usabiagaren azken lana

Txalo konpainiak ekoitzita, Euskal Herria zeharkatuko dute ▶ 3

ANOETA ▶

Ezker abertzaleak «Udalaren jarrera» salatu du

Agenda 21a «burua zuritzeko» erabili duela diote ▶ 4

ABALTZISKETA ▶

Agenda 21eko zirriborroa aurkeztuko dute

Herritarren parte-hartzea beharrezkoa dela azaldu dute ▶ 5

ALEGIA ▶

Bertsozale elkarteak «ildo beretik» jarraituko du

2006ko emaitzekin «pozik» azaldu dira arduradunak ▶ 5



Iñaki Azpiroz eta bere zakurrak, punta-puntan

LEITZA ▶ Zortzi urte daramatza dagoeneko Iñaki Azpirozek zakurren txapelketen munduan eta bere zakurrekin setter ingelesekin hainbat lehiaketetan parte hartu du. Emanaldi hauekin punta-puntako mailan dabil gainera, eta aurreko urtean, besteak beste, bere zakur Mendi Espainiako txapeldun izatera iritsi zen.

Baina ez da lehiaketan duen zakur bakarra izan ere, Izar zakurra hurrengo hitzordua martxoaren 20an izango da, Toledon (Espainia) ospatuko den erakustaldi batean. «Izarrek hor beste puntu bat lortzen badu, Espainiako txapeldun izendatuko dute. Hala bada oraingoan aurrera jarraitzeko asmoa dut». HITZA ▶ 7

JONAN FERNANDEZ ▶ BAKETIK ZENTRUKO ZUZENDARIA

«Gatazka bat ezin da gainditu norberak barruan duena gainditzen ez badu»

Baketik zentruaren 'Bider mila' proiektua aukeztuko du gaur arratsaldean Jonan Fernandezek

ESTI EZEIZA

Jonan Fernandez (Tolosa, 1962), Baketik Arantzazuko Bake Zentruko Zuzendariak *Bider Mila* proiektu berria aurkeztuko du gaur 20:00etan, Kultur Etxean.

Zertan datza *Bider Mila* proiektua?

Baketikek kurtso honetarako duen proiektu nagusia da. Baketik-en ardatz nagusia gatazken lantze etokia da, eta kurtso batzuen bitartez, gatazka etikoki lantzen irakatsi nahi dugu. Jada 1.000 pertsona igaro dira ikastaroetatik eta beste 900 inguruk eman dute izena. Hala, hilabetez hilabete bailara ezberdinetan ari gara aurkezten proiektua, eta orain Tolosan egin behar dugu. Martxoan eta apirillean dauzkagun kurtsoak bereziki eskuldekoie zuzenduko dizkiegu.

Interesatuak zer egin behar dute?

Hamar orduko ikastaroak dira, eskaintza zabala dago eta astetaz nahiz asteburuan agin dai-

tezke. Erreserba egiteko nahikoa da telefonoz deitzea edo mezu bat bidaltzea.

Zen da ikastaro hauen ardatz nagusia?

Alde batetik, saiatzin gara irakasten, nola landu eta gainditu behar den edozein gatazka ikuspuntu etiko batetik. Beste ardatza da, bakezko elkarbizitza bat prestatzea. Pixkanaka, bakeruntz eta normalizazioruntz goazenez, jendea prestatzea elkarbizitza horretarako.

Edozeinentzat da aberasgarri ikastaro hau?

Hori da, ez dira adituentzako ikastaroak, batez ere, pertsona arruntentzat dira.

Zer onura dakartza ikastaro honek?

Jendeak esaten digu, egunero gatazketarako oso tresna erabilgarriak aurkitu dituztela ikastaro hauetan.

Bakea ez al da oso gauza subjektiboa?

Ikastaroan hori asko lantzen da. Esan dezakegu bakea zer den jakiteko elementu objektibo batzuk badaudela. Histo-

rian zehar batu egin dira, eta horretarako badaude erreferentzia batzuk. Hauxe gain, badaude elementu subjektibo batzuk, eta hauek ere landu egin behar dira, jakiteko bakoitzak noiz ari den bakearen alde, eta noiz ez.

Euskal gatazkaren kasuan, baketik gertu al gaude?

Bidean gaude, eta ez gaude urrutiti. Bakea, indarkeriaren bukaera edo elkarbizitzaren normalizaioa ez dago baten edo bestearen eskuan bakarrik, baizik eta kontestu baten ondorio direla. Hala, une honetako kontestuak bakera garatzea, eta nik uste dut gertu gaudela.

Gizartearen bakea lortzeko, ezinbestekoa al da norbera-rena aurkitzea?

Asko laguntzen du horrek.



JOKEMI SAIZAR

Edozein gatazketan, %50a gure barruan dago, beraz ezin da gatazka bat konpondu, norberak bere barruan duena gainditu gabe. Gatazka gainditzeko, bakoitzak da abiapuntua. Zer egin behar du norberak bere bakea aurkitzeko?

Hasteko jakin beharra dauka ez dela bake osoa existitzen. Orduan, bakea eta justizia zatika egiten da, eta bakoitzak pentsatu behar du bere eskura zein zati dauden bakearen helburuan bere ekarpena egiteko.

hilberria ▶

Juliana Karrera Agirrebarrena

Andrea



ATZO hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-



Bere senarra: Axintxio Karrera; sema-alabak: Lurdes eta Xabier Pikabea, Añes eta Joseba Etxarri, Arantza eta Jokin Zubeldia, Joxe eta Gema Galparsoro, Jaione eta Edorta Urruzola, Axintxio eta Gali Murillo; bilobak: Oier, Xuban, Ireber, Egoitz, Maialen, Udane, Oñeka eta Iradi; senideak: Jose eta Juanita, Maria eta Antonio (†), Karmen eta Felipe, Martin, Pepi (†) eta Arturo, Antton eta M^a Jesus, Belen, Gonzalo eta Nekane, Esteban, Marti eta Pello; izebak: Inaxi, Joxepa eta Jesusa; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitiz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela, GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN BARTOLOME parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ Gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongada Beilatokian dago.

AMEZKETAN, 2007ko marboaren 14an



EUSKARA ▶

Bai Euskarari ziurtagiriarekin elkarlana

Atzo, Kontseiluak eta Udalak lankidetzat hitzarmena berritu zuten. 6 urte igaro dira Tolosan Bai Euskarari Akordioa abian jarri zenetik eta ondorioz hiriko 60 saltoki, enpresa eta entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria dagoeneko. Hitzarmen honekin euskararen normalizazioa sustatzea da helburu.

GIZARTEA ▶

Nikaraguako alfabetatze proiektua hizpide

Nikaraguako eskualde pobreenetako batean, Malpaisillon, Amarozko Auzo Elkarteak gauzatzen ari den proiektuaren berri emango dute bihar, 16:00etan, Tolosako EPAko egoitza berrian. Hizlaria Ana Lozano izango da, Tolosako Giza zerbitzuetako ardura-duna, eta Nicaraguan aurreramatzen ari diren alfabetatze proiektua nola doan azalduko du.

hilberria ▶

Juliana Karrera Agirrebarrena

Lizean jaio, lñanbin bizi jun zea Txindokipetik emakume gogor ta langilea jun zaigu gure ondotik hemen utzi diguzun maitasuna ez da galduko inondik maite izan zaitugu guztiok izeba Juli bihotzetik.

Zure ilobak

Gaur, AMEZKETAKO SAN BARTOLOME parroki elizan izango da bere hileta meza, arratsaldeko ZAZPIETAN.

AMEZKETAN, 2007ko MARTXOAREN 14an



hilberria ▶

Juliana Karrera Agirrebarrena

Andrea



-Golan bego-

Agur amona maitea nahiz eta gaur, agur esan behar beti barre-barrean gurekin izango zara.

Zure bilobak: Oier, Xuban, Ireber, Egoitz, Maialen, Udane, Oñeka eta Iradi.



AMEZKETAN, 2007ko marboaren 14an

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ANOETA ▶ AGENDA 21

Udalak eramandako prozesua salatu du ezker abertzaleak

Agenda 21a «burua zuritzeko» erabiltzen duela eta bertan EAJ-EAri «komeni zaizkion» ondorioak atera direla diote

ERREDAKZIOA

Udalak Agenda 21 prozesuan egindakoa eta onartu berri duen ekintza planari buruz esandakoa salatu du Anoetako ezker abertzaleak. Ekintza plana zehazterakoan Udalak «adostasun osoa» zegoela azaldu zuen. Horren aurrean, ezker abertzaleak azaltzen dutenez, herritarren parte-hartzea «oso eskasa» izan da eta «batzarretan parte hartu dugunon iritzia ez dira kontuan hartu ondorioak zehaztu eta ekintza planean eman beharreko pausuak markatzeko garaian». Atera diren ondorioak «EAJ-EAren udal gobernu honi komeni zaizkionak izan dira», gaineratu du.

Agenda 21a «beraien burua zuritzeko» eta lau urte hauetan Udalean izan diren «gabeziak estaltzeko» erabili dutela diote eta Udalak «aipagarrienak» bezala dituen hainbat gaietan esandakoa eta legealdian gai hauen inguruan izandako «jokamoldea» salatzen dute.

Etxebizitzari dagokionez, Udalaren ekintza planean esandako gogoratzen dute: «Bertako herritarrentzat, batez ere gazteentzat, etxebizitza berriak sustatu behar direla». Horrez gain, hauteskunde programan «babes ofizialeko etxeak eraikiko zituztela aipatzen zuten, baina Udala hartu ondoren gai honekiko politika erabat aldatu dute».

Ezker abertzaleak dioenez, Udalean zeudenean «martxan

utzi zituen herriko gazteei zuzenduriko babes ofizialeko 58 etxeek duela bi urte amaituta egon behar zuten arren, etxe horiek oraindik bukatzeko daude». Etxebizitza horiei jarraipena emango zien proiektua «bideratua utzi genuen arren, proiektu hori atzera bota zuten».

Udalak onartu zuen proiektua, herrian eginiko inkesta baten bidez ateratako ondorioetan «oinarrizten omen zen», diote. «Inkesta horren arabera Anoetako gazteek batez beste 30.000 euro irabazten omen dituzte urtean. Ez dugu ezagutzen Anoetako gazterik inkesta honen berri duenik», esan dute. «Herritarren etxebizitza arazoari aurre egiteko zeukan proiektua atzera bota zietela eta EAJ-EAk berea aurrera eramateko gaitasunik ez izatea leporatzen diete.

«Herritarroi galdetu»

Ezker abertzaleak ez du bat egiten Udalak onartutako ekintza planean AHTren proiektua bere gain hartzen duela dioenean: «Batzarretan parte hartu dugunon artean kezka gehien eragin duen gai bat izan da, gure erabateko ezadostasuna azaldu dugu eta udaletxean 300 sinaduraren babesarekin moztioa aurkeztua izan ondoren gaia aztertzea ere ukatua izan da».

«Ingurumena kaltetu gabe burutuko dela dio Udalak», jarraitzen du ezker abertzaleak,

«eta Eusko Jaurilaritzak proiektua definituta duenean udalei luzatzen zaien informazioa herriari jakinaraztea aurreikusuten dela».

Horren aurrean, zenbait lekutan «lanak hasi direla» eta Eusko Jaurilaritzak, eta baita Anoetako Udalak ere, «proiektu txikitzaile honen inguruko datu eta planoak» dituztela diote, beraiek ere «Udaletik bertatik» lortu dituztelako. Horren inguruan «gezurrik» ez esatea eta herrian «informazioa zabaldu eta eztabaidatu ondoren herritarroi galdetzea» eskatzen dio ezker abertzaleak EAJ-EAri. AHT proiektuarekin, besteak beste, «inongo oztoporik gabe EAJK txikizioa eragin eta dirutza jasotzeko», jarri zutela martxan «bartzaketa» Udalean salatzen dute.

Ezker abertzaleak herritarren parte-hartzea bultzatzea eta beharrek eta kezkek zehaztea beharrezkoa dela deritza, baina «denon iritzia ez bada errespetatzen eta alderdi interesak alde batera utzita ez bazaie herritarren benetako beharrei aurre egiten», ez duela ezertarako balio diote.

Agenda 21 ez dela «oroigarri moduan apalean edukitzeko dokumentua», baizik eta «eguneroko eginbeharretan kontuan eduki beharrek lan tresna» zehazten dute, Udalak «lanerako gogorik, herriaren eta herritarren beharrei aurre egiteko borondaterik, eta horrela lan bat egiteko gaitasunik baldin badute behintzat».

VILLABONA ▶

Ur eta zabor tasentzako diru laguntzak

2007ko ur eta zabor tasak ordaintzeko diru laguntzak emango ditu Villabonako Udalak. Diru laguntzak jasotzeko familia unitatea osatzen duten guztien hilabeteko diru sarrerak oinarritzko errenta baino gehiago ezin du izan eta ohiko etxebizitzaz gain beste higiezinik izan dute izan. Eskaria egiteko epea hilaren 30ean amaitzen da. Informazio gehiagorako Udaleko Gizarte Zerbitzuera deitu daiteke, 943 693925 zenbakira.

ANOETA ▶

Sagardotegia antolatu dute Korrika egunean

Anoetako Korrika Batzordea hainbat ekitaldi prestatzen ari da, herritik Korrika igaroko dela eta. Hain zuzen ere, hilaren 24an, 10:20ak inguruan pasako da Anoetatik. Eguneko ekintzetako bat Sarasola sagardotegian egingo den bazkaria da. Bertara herritar guztiak gonbidatzen dituzte batzordetik. Izena eman nahi dutenek hilaren 17a baino lehen egin behar dute Itzuli tabernan.

VILLABONA ▶

Kunka taldearen antzezlaren iragarpen berezia

Kunka taldeak *Meando fuera del tiesto!* antzezlana emango du etzi Gurea aretoan. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Baina, horren aurretik, gaur Villabonan antzezlaren iragarpen berezia egingo dute. 17:30ean abiatuko dira plazatik eta denda, taberna eta topatzen duten beste hainbat lekutan sartuko dira, jendea zirikatuz, antzezlaren erakutsiko duten umorea erabiliz.

ANOETA ▶ KULTUR ASTEA



Atzoko saioaren une bat. I. GARCIA

50 haur aerobik eta batuka saioan

Anoetako Kultur Astearen azken ekitaldia egin zuten atzo. Aerobik eta batuka saioa atzeratu zen eta azkenean atzo izan zuten haurrek aukera ekitaldian parte hartzeko. Musikaren doinura gorputza edeki astindu zuten 50 haur inguruk. Saioak iraun bitartean parte-hartzaileen joan-etorria izan bazen ere, talde handi batek jarraitzen zituen dinamizatzaileen mugimenduak.

Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti.
Anoeta. Harrizko baserrian etxebizitza. Berritzeko, 90m2koa.
Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak. Azken bi modulua. 350m2koa.
Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.
Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairuko.
Legorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.

Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.
Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra, abeltzaintzarako ustiaketaekin.
Lizartza. 900m2ko bi modulo salgai.
Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.
Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.
Irura. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai Laskibar inguruan. Garajea eta trastelekuarekin.
Tolosa. San Esteban auzunean,

kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.
Tolosa. Ugarran Goenari, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.
Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoak alokairuan.
Tolosa. San Frantziskon etxebizitza. 90 m2koa, eraberritua, eguzkitsua.
Tolosa. Agintari kalea. Bi logelatako etxebizitza. Egongela, sukalde eta komunarekin.

Tolosa. 89 m2ko etxebizitza salgai Zabalarretan. Hiru logela, garaje eta trastelekuarekin.
Tolosa. Santa Klaran, etxebizitza salgai, atzealdean lur sailarekin.
Tolosa. Zumalakarregi kalean 160 m2ko etxebizitza. Egoera oso onean.
Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.
Tolosa. Maitua zaharra. Azken 5 garaje itxiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Marboan hasiko dira lanak.

ALEGIA ▶ KULTURA



Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarte kideak: Oroitz Azurmendi, GBEko koordinatzailea, Felix Irazustabarrena lehendakaria eta Joxe Mari Altuna diruzaina. GIPIZKOAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA

Bertsozaleen Batzar Nagusian, «ildo beretik» jarraituz

2006ko emaitzekin «pozik», aurtengo egitasmoen baitan, hasitako helburuei jarraipena emango diete

ERREDAKZIOA

Joan den hilaren 3an Gipuzkoako Bertsozale Elkarte Batzar Nagusia egin zuten Alegiko Inaxio Begiristain kultur etxean. Bertan, besteen artean, egitasmoen berri eman zuten Felix Irazustabarrena lehendakariak, Joxe Mari Altuna diruzainak eta Oroitz Azurmendi koordinatzaileak. Aurtengo egitasmoei «pozik» agertu dira, eta «2006ko ildo beretik jarraituko» dute.

2006. urteko deskarguaz ari ziren lehenik: «Hezkuntzako proiektua zabaldu eta egituratu da eta hazten jarraitu. Dagoeneko 5.000 ikaslera iritsi gara». 2006an Zizurkil, Ibarra, Lezo, Eibar eta Zestoan hasi dira lanean. Joan den urtean zehar proiektua herri hauean aurkeztu dugu eta udaletxe nahiz eskolekin adostasunetara iritsiz, hezkuntzako proiektu honetan parte hartuko dute». Aldi berean, erritmo apalagor bada ere, «Bertso Eskolen Sarea egituratzen jarraitu da». Azurmendik esan bezala, «Gipuzkoako Eskolen Sarearen baitan, lau afari egin genituen 16-20 urte bitarteko bertsolarietan: hauek ere plazaratzeko bidea izan da egitasmo hau».

Bertsolari gazteak plazaratzeko plangintzari loturik dago, baina ez da hasiera batean planteatu bezala: «Bertan behera geratu da, bertsolarien aldetik autoantolatetarako pauso handiak eman direla ikusi-

ZUZENDARITZA ▶

Lehendakaria.

Felix Irazustabarrena.

Idazkaria. Saroi Jauregi.

Diruzaina. Joxe Mari Altuna.

Ikerkuntza arduraduna.

Unai Elizasu.

Transmisio arduraduna.

Nerea Urrea eta Antton

Fernandez.

Komunikazio arduraduna.

Iñaki Apalategi.

Sustapeneko arduraduna.

Ander Lizarralde.

Zuzendaritzako gainerako

kideak. Iñigo Manzisidor eta Aitor Mendiluze.

ta». Azurmendik Hamaika Bertuteraren kasua gogoratu zuen: «Gipuzkoan sortu den mugimendu autoantolatatu bat da, eta honen aurrean utzi egin genuen hasierako egitasmoa, ahalegin hori eten egin zen».

Gipuzkoako Txapelketa

Bestalde, 2007ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako oinarriak ezarri dituzte: «Lau urtetik behin egiten da eta aurtenguri egokitu zaigu. Hori dagoeneko martxan jarri dugu».

2007ko egitasmoari dagokionez, aurtengo urterako helburu nagusienak orain arteko lanari jarraiki planteatzen dira, aipatu diren hiru helburuak, hain zuzen. Lehenik, Bertso Eskolen sareko egitasmoarekin jarraitzea; bigarrenik, hezkuntzako proiektua gehiago zabaltzeko asmoa, Donostian, Iruenen edota Anoetan aurkeztu direlarik. Eta azkenik, 2007an jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzea.

Bukatzeko, Batzar Orokorrean 2007. urterako karguak hautatu zituzten, eta egituratuta geratu da Gipuzkoako Bertsozale Elkarte.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ABALTZISKETA ▶ AGENDA 21

Lehen zirriborroaren aurkezpena egingo dute

Herritarren parte-hartzea bultzatu nahi dute, Udalak etzi deitu duen batzarrerako



Herriz herri ari dira Agenda 21eko bilerak egiten. Irudian, Baliarrainen martxoan egindakoa. HITZA

ERREDAKZIOA

Etzi, ostirala, 20:00etan herri batzarra egingo dute Abaltzisketako Kultur Etxean, Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela-eta osatu duten ekintza planaren lehen zirriborroa aurkezteko eta herritarren artean antzeman diren hutsuneak konponbideak bilatzen saiatzeko.

Plan horretan mota guztietako ekintzak atera dituzte: biztanlegoa, etxebizitzak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... Hau elkarrizketa bidez

lorturiko herritarren iritziak, eta herri batzarrean esandakoak kontuan hartuz osatu dute. Ekintza plana erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Gainera, herrirako etorkizunerako plangintza definitu nahi dutenez, oso garrantzitsua da herritar guztiek parte hartzea.

Ekintza plana irakurri nahi duenak ikusgai izango da udaletxean eta nterneten, www.tolomendi.net/agenda21 webgunean. Herritar guztiek parte har dezakete.

AMEZKETA ▶

Herriari buruzko galdetegiak gaurko postontzian

Amezketako ezker abertzaleak, bilerak batzuz egin ditu eta ondorioz, galdetegi bat banatu du herrirako etxeetan. Helburua diagnosi bat osatzea da. Gaur da etxeetan jasotako galdetegiak udaltxearen atarian jarri den postontzian sartzeko azken eguna. Aldez aurretik eskerrak luzatu dituzte ezker abertzalekoek, galdetegi hau bete izateagatik.

ALEGIA ▶

'Hiero 3' ren aurretik, 'Nilo Txuria piraguan'

Gaur Alegiko Gaztetxean izango den filma *Hiero 3* izango da. Korearra da, eta emakume batek jasaten dituen tratu txarrekin loturiko historiari kontatzen ditu beste askoren artean. 21:30ean izango da, baina aurretik, 20:30ean, *Nilo txuria piraguan* DVD emanaldia izango da. Joan den astean zen ikusgai, baina bertan behera geratu zen.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995. urtekoa. 153.000 kilometro, liburuarekin. Egoera oso onean. Telefono zenbakia: 943 654143.

LANA

Sukaldaria. Asteburutarako sukaldaria behar da. Deitu 615 789006 telefono zenbakira.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 691933.

Gidariak. Gidariak erakunde publikotarako behar dira. 943 444866.

Harreragileak. Harreragileak behar dira udaletxeetarako. 943 444866.

Ileapaintzailea. Ibarrako LM ileapaintzaileak langileak behar du. 943 670343.

IBARRA ▶

‘Pipermin’
deialdia gaur
20:00etan
Gaztetxean

Belaunaldi ezberdinei deia luzatu diete Gazte Asanbladakoek parte har dezaten

A. IMAZ

Gaur Ibarako Gaztetxean *I. Pipermin Jaia*ren egitaraua aurkeztuko dute 20:00etan. Gaztetxetik igarotako belaunaldi guztiei, bertara azaltzeko gonbitea egiten die Gazte Asanbladak, martxoak 31n egingo duten jaian parte hartu eta prestatuak dituzte beste ekitaldietan ere egon daitezten. Izan ere, «adibidez, argazki erakusketa egiteko, guztien argazkiak bildu nahi ditugu».

Belaunaldi ugari elkartuko dira beraz, gaur 20:00etan Ibarako Gaztetxean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aitzondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxis: 670420
- ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ PILOTA

ASIER IMAZ

Sendi Ekintza elkarteak urte asko daramatza pilota bultzatuz Ibarren. Haur eta gazteekin lanean aritu dira pilota munda herrian barrena zabalitzen. Azken urteetan Antxon Juantoren ibili da lan horretan, baina «urte asko eta lan handia egin ondoren» lehengo urtean utzi egin zuen. Hutsune hori bete zera, aire berriekin Koldo Rabadan azaldu zen «proiektu bat esku artean zuela».

Orain artean bezala, herriko haurrei zabaldua egongo da pilota eskola, baina ezberdintasunak ere egongo dira. «Guk Tolosako hiru ikastetxeekin konbenioak lotuak ditugu. Etoritzen diren haurrek, pilota aniztasuna, kirola ezagutu eta modalitate ezberdinekin kontaktua izatea nahi dugu. Ondoren, 11 urtetik aurrera, euren gehien gustatzen zaiena hautatzeko». Horretarako, Ibarren Sendi Ekintza eta Uzturpe Ikastolarekin elkartu ziren, proiektu hau aurrera eramaten dabilen Pilota Aniztasuna Kirol Elkarte Errekreatibokoak. «Armiarma sare antzeko bat sortu nahi dugu. Ikastetxe eta pilota eskoletako ordezkariekin elkartzen gara, haurrei pilota eredu ezberdinak erakusteko helburuarekin. Hurrengo urtean Sendi Ekintza eta Uzturpe ikastolako ordezkariak ere elkartuko dira».

Ibarren abenduan hasi zen Rabadan haurrekin lanean. Uzturpe ikastolako ez gain, herriko haur guztiengana irekia dagoen pilota eskolan, «esku pilota, pala edo zesta puntan ibiltzen dira haurrak. Neskak ere azken aldian 8 ditugu gure artean, hauek palaz ibiltzen

Berrikuntzekin ekin
diote ikasturteari
pilota eskolakoek

Koldo Rabadan irakasle dutela, Sendi Ekintzako pilota eskolan, modalitate ezberdinak lantzea izango dute helburu



Atzo, asteartero bezala pilota eskolakoak polikiroldegian elkartu ziren; oraingoan eskuz jolastu zuten. A.I.

dira, oso gustura gainera». Astearte eta ostegunetan elkartzen dira Ibarako kiroldegian, 17:15etik 19:00ak arte. «Ateak zabalik daude, ezagutu eta elkartu nahi duenak egun hauek batean etortzea besterik ez du».

Egun hauetaz gain, larunbatetan ere elkartzen dira Tolosako haurrekin batera partiduak jolasteko. «Tolosa eta Ibarako haurrak elkarren artean nahastu eta partiduak jokatzen dituzte larunbatetan, Beotiba-

rren edo Ibarako frontoian». Honetaz gain, irteerak ere antolatzen dituzte, «azkena, Galarratera egin genuen, Erremonte partidu bat ikustera joan ginen. Besteak beste Koteto Ezkurra eta Patxi Zeberio ikusi genituen eta hauek aldagelak erakutsi zizkiten haurrei».

Etorrizunen federatuak

Hasieran helburua pilota modalitate guztiak ezagutzea bada ere, gero Sendi Ekintzan

federatu bezala jarraitzeko aukera ez du baztertzen Rabadanek. «Uzturpe Ikastola bidez eta ahoz aho ahal den jenderik gehiena bildu nahi dugu, modalitate ezberdinak proba ditzatela eta ondoren, federatu bezala jarraitu nahi badute, bideak zabalduko genituzke berezitasunarekin laguntzeko. Urte gutxi barru Ibarren pilotari federatuak egongo dira».

Sendi Ekintzakoak ere gurtura azaldu ziren Rabadanek ekarritako berrikuntzarekin.

IBARRA ▶ HITZALDIA

German
Altzuetaren
hitzaldia

A. Imaz ▶ Aste misiolaria herenegun hasi zen German Altzuetaren misiolari donostiarraren hitzaldiarekin. 1959. urtetik etetik urrun ibili da, Ekuador eta Ruanda bezalako herrialdeetan misiolari lanetan. «48 urtean zehar ezagutua eta bizitua» kontatu zituen parrokiako lokalean, lekuan lekuko gizartea bere ikuspuntutik aztertzeaz gain. Gaur berri, Gobernuz Kanpoko Kalkuta Ondoan Era-kundeak hitzaldia eskainiko du 20:00etan. Ostiralean berri, afari solidarioa egingo dute, 10 euroren truke. A. IMAZ



LEITZA ▶ ANIMALIAK

Arrazaren garrantzia

Iñaki Azpirozek 8 urte daramatza bere setter zakurrekin lehiaketetan parte hartzen, eta txapelketa ugari irabazi ditu, Espainiakoa, besteak beste



Iñaki Azpiroz, lehiaketaren sari banaketaren unean. HITZA

NAIARA GARZIA

Iñaki Azpirozek txikia zenetik zakurrak etxean izan dituen arren, 8 urte daramatza zakurren txapelketen munduan eta bere txakurrekin setter ingeles hainbat lehiaketatan parte hartu du. Emanaldi hauetan punta puntako mailan dabil, eta aurreko urtean bere zakur bat, Mendi, Espainiakoa txapeldun izatea iritsi zen, horretarako ezinbestekoak ziren puntuak (hainbat lehiaketatan bildutakoak) jaso ondoren.

Zakurren txapelketen mundua hagitz konplexua da kanpotik, bai txapelketen antolaketa, baita puntuazioaren sistema ere. Iñaki Azpirozek dioen bezala, «txapelketa hauen helburua txakurren arrazak mantentzea da, bestela galdu egingo bailirateke». Setter ingeles txapelketaren arauen arabera, «setter bat ederra da bere morfologiak arraza horren helburua behar bezala betetzen uzten diotenean, hau da, bere morfologiak katuen modura ehizatzen uzten diotenean». Hori horrela den ikusteko

zakurra goitik behera begiratzaren dute epaileek, eta beste hainbat proben artean gorputzaren atal ezberdinen arteko tartek neurtzen dituzten. Gainera, Espainiakoa txapeldun izateko puntuazio zehatz bat izatea bezain garrantzitsua da hiru epaile ezberdinek emandakoa izatea. «Askotan bi txakur arraza aldetik perfektuak izanda ere, bi epailek gauza bera ez pentsatzea gertatu ohi da», dio Azpirozek. «Hiru epaile ezberdinek txakur bati pun-



Mendi, Frantzia. HITZA

tuazio konkretu bat emateak garrantzi handiagoa du, zalan-tzarik gabe».

Setter ingeles txapelketa

Setter ingeles dohaie dago kienez, Azpiroz ustez, «hemengo mendietarako hobekien moldatzen diren txakurrrak dira. Horregatik, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian ere txakur hauekiko zaletasun handia dago. Honetaz gain, oso txakur azkarrak dira». Iñaki Azpirozek bost setter ingeles ditu eta txapelketetan orain birenkin dabil. Mendi izenekoa Estatu espainiarreko hainbat txapelketatar joateaz gain, aurreko urtean Frantzia izan zen, han ospatu zen emanaldi batean. «Frantzia Pilard izeneko epaileak, Frantziako Setter Klubeko lehendakaria dena eta arraza honen inguruan idatzi den oinarriko liburu baten egilea, setterrik hoberena izendatu zuen». Honela, beharrezkoak ziren puntu guztiak lortu ondoren, Espainiakoa txapelduna izendatu zuten. «Hau eta gero, hurrengo urratsa Espainiakoa txapeldunak ziren arraza

bereko zakur ezberdinen artean lehiatzea zen, eta handik Europako txapelketara pasatzea, baina aurrera ez jarraitzea erabaki nuen». Izan ere, ez da erraza horrelako txapelketetan parte hartzea, ez ekonomikoki, ezta joan-etorrien aldetik ere. «Urtean zehar hamaika emanaldi daude eta bitara aurkeztea beharrezkoa da. Hortik aurrera bakoitzak ahal duena egiten du, gero eta gehiagotara aurkeztu, orduan eta aukera gehiago dituzu puntuak lortzeko».

Iñaki Altzateren zakurrak punta-puntan ibili arren, berak zaletasunarengatik egiten duela argi utzi du. «Txapelketa hauetara joaten direnak orokorrean haztegietatik ateratzen-

dira. Askok urte dezente daramatza. Ni berriz zaletu bezala joaten naiz, eta urte hauetan beste hauek urte askotan lortu ez dutena lortu dut».

Iñaki Azpiroz eta Izar zakurraren hurrengo hitzordua martxoaren 20an izango da, Toledon (Espainia) ospatuko den erakustaldi batean. «Izarrek hor beste puntu bat lortzen badu, Espainiakoa txapeldun izendatuko dute. Hala izanez gero, oraingoan aurrera jarraitzeko asmoa dut».

Zakurrekiko zaletasuna

Iñaki Azpiroz setterrak ehizarekin erabat lotuta daude eta bera eta txakur hauen arteko harremana txapelketa hauetatik haratago doa, beretzat hauek baino lehen ehiza baitaigo. «Lehiaketa hauek ekar dezaketen arrakasta ez zait interesatzen. Niretzako gogobetetze pertsonala da, baina irabazi edo ez, txakur guztiek bere balioa dute, azken batean zure lagunak bihurtzen baitira».

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeta

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Hezkuntza emozionaleko formazioko lehen maila burutu duten Hirukide eta Laskoraingo gurasoentzat bilera izango da gaur 18:00etan Hirukide Jesuitinatak Aretotan.
Tolosa. Baketik Arantzazuko bake zentroaren aurkezpen ekitaldia Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. Deustuko Unibertsitatearen informazio jardunaldia izango da Kultur Etxean 18:30ean.
Zizurkil. Korrikaren bertso bazkaria izango da hilaren 24an Ainhoa Agirreazaldegi eta Andoni Otamendirekin. Txartelak salgai Aurrera, Egari eta Goiko Zentro tabernetan 15 eurotan.

ZINEMA

Alegia. Gaztebean, 21:30etik aurrera *Hierro 3* drama izango da ikusgai, Hego Koreako filma (Ki Duk Kim, 2004).

ERAKUSKETAK

Leitza. Pako Zufiaurrek Naturak jasaten duen txikizoiaren inguruko alegoria bat erakutsi nahi du Torrea tabernan jarritako argazkietan. Hilaren 31ra arte ikusgai.
Tolosa. Ander Gillenearen *Herri bat erbesteren* argazki erakusketa Aranburu Jauregian.
Tolosa. Alberto Letamendiren *Migraciones: sonidos desiertos* pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Irurtzun. Mutloa, A. San Martin, 5. 112.
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, HITZaren errepasoak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta irizien erantzukizunik.



Atzoko probetako bat lokotx bilketa izan zen. E. EZEIZA



Gogotsu animatzen zituzten ikaskideak, irabaz zezaten. E. EZEIZA

Plaza Berria jolastoki

TOLOSA ▶ Euskal Soin Jarduera taldeak antolatutako jaialdian eskualdeko lau ikastetxeetako gazteek hartu zuten parte atzo



Joku ugarritan hartu zuten parte ikasleek, horietako batzuk herri kirolak. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Euskal Soin Jarduera proiektuak bere martxa polita darama eta oraingoan Tolosan izan da jaialdia. Bertan, eskualdeko lau ikastetxeetako DBHko bigarren mailako ikasleak izan dira protagonistak. Izerdi ugari bota zuten atzo gaztetxoek lokotx bilketan, sagar bilketan, sokatiran...
 Villabonako Jesusen Bihotzako ikasleak, Tolosako Laskorain eta Orixekoak, Anoetako Herri Ikastolakoak eta Ibarrrako Uzturpekoak aritu ziren atzo Tolosako Plaza Berrian Ikaspiotako arduradunek antolatutako jolasetan.
 Saio hauen helburuak ondo-erangoak dira; ikasleen arteko harremanak sortu eta sendotzea; euskal joko eta jolasak indartzea; euskara eta jolasa komunikatzeko tresna hezitzaile bezala lantzea; euskal kulturaren trasmisioa garatzea; pilota-leku eta plazak alaitzea; ikastolen arteko harremana sendotzea; eta batez ere, ongi pasatzea.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa